

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	URDANETA IKASTETXEA	kodea: <i>código:</i>	014849
etapa: <i>etapa:</i>	ESO	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	4º
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	EDUCACIÓN FÍSICA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>			
diziplina barruko oinarritzko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none"> 1- Competencia motriz. 2- Competencia en cultura científica, tecnológico-medioambiental y de salud. 3- Competencia social y ciudadana. 4- Competencia en cultura humanística y artística. 5- Competencia de la autonomía e iniciativa personal. 6- Competencia para aprender a aprender. 		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Fernando Casas y Xabier Garrigós	ikasturtea: <i>curso:</i>	19-20

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Competencia digital y sobre el tratamiento de la información.
2. Competencia en comunicación lingüística
3. Competencia matemática.
4. Competencia lectora.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> 1. Desarrollar conceptos básicos adquiridos en la actividad de waterpolo para continuar aprendiendo de manera cada vez más eficaz y autónoma. 2. Nadar 200m utilizando diferentes estilos y virajes (50m cada estilo) para interactuar con un mundo físico. 3. Participar y disfrutar de las diferentes actividades acuáticas con autonomía para continuar aprendiendo de manera cada vez más eficaz y autónoma. 4. Desarrollar las capacidades físicas y habilidades específicas y deportivas que le permitan satisfacer sus necesidades para continuar aprendiendo. 5. Incrementar sus posibilidades de rendimiento motor mediante el acondicionamiento y mejora de las capacidades físicas básicas para el perfeccionamiento de sus funciones de ajuste, dominio y control corporal respecto a 3º E.S.O. 6. Controlar aspectos técnicos y tácticos básicos para la práctica de modalidades deportivas individuales y colectivas para aprender a aprender, desarrollar y evaluar acciones. Actividades deportivas a realizar: con balones de baloncesto, con balones de fútbol y actividades con implemento (raquetas de bádminton, palas de pádel, raquetas.) y cuerdas. (Unidad problema). 7. Conocer aspectos generales respecto a las lesiones, su prevención y tratamiento, y el desarrollo de las cualidades físicas básicas para lograr un conocimiento y desarrollo más profundo de los mismos. 8. Tener normalizados los hábitos de higiene y de respeto relacionados con la actividad, así como la puntualidad, asistencia a clase y normas respecto a la equipación para continuar aprendiendo y ser capaz de desarrollar acciones con responsabilidad y sentido crítico. 9. Practicar y perfeccionar las actividades físicas deportivas y recreativas en un entorno natural planificadas individual y colectivamente para el curso o para un futuro próximo. (Unidad problema) 	<ol style="list-style-type: none"> 1- Realizar con corrección y con la intensidad adecuada a las características del alumno, la actividad física y deportiva señalada. 2- Baremo individual y colectivo en los diferentes test para el desarrollo y mantenimiento de la condición física y la salud. 3- Control de equipación (traje de baño, chanquetas, zapatillas de deporte..) diaria. El alumno con tres faltas sin justificar no podrá aprobar la evaluación, tampoco aprobará si dos de esas faltas sin justificar son de natación. 4- Observación de la actitud de no respeto a sus compañeros y a la propia actividad (llamadas de atención...). 5- Observación de la motivación y las ganas de disfrutar de las actividades planteadas con sus compañeros. 6-Al alumno se le calificará (no evaluado) si no hace al menos al 50% de las clases prácticas de cada unidad didáctica. 7-Los alumnos que no pudieran hacer la actividad física por tener justificante médico serán evaluados por trabajos teóricos. Estos trabajos los realizarán durante la clase o sesión de Ed. Física o Natación.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

*** Una unidad didáctica tendrá que desarrollar una situación problema. Indicar cuál es.

Horas	1ª evaluación	Horas	2ª evaluación	Horas	3ª evaluación
6	1. NATACIÓN (dominio 1 actividades individuales): a) Coordinaciones básicas en los estilos de espalda y braza.	6	4. NATACIÓN: a) Coordinaciones básicas en los estilos de crol y mariposa.	6	7. NATACIÓN: a) Desarrollo técnico, táctico y lúdico en waterpolo.
10	2. CUALIDADES FÍSICAS: (Dominio 1 y 3 actividades individuales y cooperativas) b) Tipos de ejercicios del calentamiento, articulaciones y segmentos y entrenamiento de la resistencia. c) Desarrollo de las cualidades físicas básicas respecto al curso anterior. d) Test y práctica de aptitud física para el desarrollo de la condición física	13	5. CUALIDADES FÍSICAS: b) Lesiones en la práctica deportiva y el desarrollo de la fuerza c) Desarrollo de las cualidades físicas básicas respecto al curso anterior d) Test y práctica de aptitud física para el desarrollo de la condición física	10	8. CUALIDADES FÍSICAS c) Entrenamiento de la flexibilidad y análisis mecánico del movimiento d) Desarrollo de las cualidades físicas básicas respecto al curso anterior e) Test y práctica de aptitud física para el desarrollo de la condición física
6	3. DEPORTES : e) Actividades encaminadas al perfeccionamiento de la técnica individual y colectiva básica del baloncesto mediante retos cooperativos y competitivos. (Dominio 3 y 4 actividades cooperativas y de oposición):	7	6. DEPORTES: Dominio 4 y 5 actividades de colaboración y oposición en el medio natural): E) Actividades encaminadas al perfeccionamiento de la técnica individual y colectiva básica del fútbol mediante retos cooperativos y competitivos.	6	9. DEPORTES (dominio 2 actividades uno contra uno): f) Desarrollo de las diferentes actividades deportivas relacionadas con implemento: bádminton, pala, frontenis mediante retos cooperativos y competitivos.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- 1.- Exposición oral y práctica de los contenidos al principio de la sesión (calentamiento) y a lo largo de ella (parte principal).
- 2.- La parte principal por mando directo, resolución de problemas se desarrollan los contenidos de la sesión (natación y otras actividades físico deportivas).
- 3.- Vuelta a la calma con repaso de algunos contenidos y desarrollo de los hábitos actitudinales y de higiene en las condiciones requeridas.
- 4.-Herramientas TIC (classroom), presentaciones ppt, web...) móviles, aplicaciones de salud (runtastic o similares...) sobre contenidos a desarrollar.
- 5.-Material deportivo específico para las diferentes actividades.
- 6.-A través de las herramientas GOOGLE DRIVE, CLASSROOM (condición física, actividades físicas y deportivas).

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>1- Escalas o tablas de observación para el control de la intensidad adecuada a las características del alumno, la actividad física y deportiva señalada.</p> <p>2- Baremo individual y colectivo en los diferentes test para el desarrollo y mantenimiento de la condición física y la salud.</p> <p>3- Control de equipación (traje de baño, chancletas...) diaria</p> <p>4- Observación de la actitud de no respeto a sus compañeros y a la propia actividad (llamadas de atención...).</p> <p>5- Observación de la motivación y las ganas de disfrutar de las actividades planteadas con sus compañeros.</p> <p>6-Al alumno se le calificará (no evaluado) si no hace al menos al 50% de las clases prácticas de cada unidad didáctica.</p> <p>7-Proyectos o trabajos individuales o colectivos para conseguir los objetivos relacionados con las unidades problema. (Los lesionados de larga duración con justificante médico también realizarán este tipo de trabajos que podrán también ser evaluados mediante alguna prueba escrita)</p>	<p>1.- Elaboración de un proyecto o trabajo en 1º, 2º o 3º evaluación 30% por medio de tablas y/o rúbrica.</p> <p>2.- Aspectos procedimentales de las actividades de natación por medio de tablas de observación y control – 10 % -</p> <p>3.- Aspectos actitudinales de las actividades de natación por medio de tablas de observación y control – 10 % -</p> <p>4.- Aspectos procedimentales de las Cualidades Físicas Básicas por medio de tablas de observación y control – 15 % -</p> <p>5.- Aspectos actitudinales de las Cualidades Físicas Básicas por medio de tablas de observación y control – 10 % -</p> <p>6.- Aspectos procedimentales de las actividades deportivas por medio de tablas de observación y control – 15 % -</p> <p>7.- Aspectos actitudinales de las actividades deportivas por medio de tablas de observación y control – 10 % -</p> <p>NOTA: Se deben superar los contenidos mínimos (conceptuales, procedimentales y actitudinales) para superar la evaluación.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>1.- Conceptos: - Aprobar la prueba escrita de la evaluación siguiente (También se valorarán contenidos de evaluaciones anteriores) o completar el proyecto o trabajo dónde no se consiguieron los objetivos mínimos.</p> <p>2.- Procedimientos y actitudes: - Se recuperarán en las prácticas de la evaluación siguiente.</p> <p>3.- Prueba final y extraordinaria escrita y práctica: Se valorarán todos los objetivos mínimos no superados.</p>	

OHARRAK / OBSERVACIONES

--



Irakasgaiak: GORPUTZ HEZKUNTZA

Gaia: BADMINTONA
Maila: 4.DBH
Saio kopurua: 9 Saio
Proposamenaren justifikazioa: Badmintonā, kirol alternatiboen barruan sailkatzen dugun kirola, ez da ohiko kirolak bezain ezaguna. Ikastetxeetan gero eta gehiago praktikatzen bada ere, <u>kirol nahiko berria</u> dela esan daiteke. Unitate honetan egingo ditugun <u>jarduera teorikoekin</u> ikasleek, kirol honi buruzko <u>ezaugarriak</u> , <u>kirolari famatuak</u> eta <u>hauen jolasteko era</u> ezagutzea bilatu nahi dugu. <u>Jarduera praktikoeekin</u> berriz, ikasleek badmintonean <u>trebetasunak lortzea</u> izango da helburua. Honekin batera, ikasleek badmintonā aisialdian praktikatu dezaketen kiroltzat har dezaten lortu nahi dugu.
<p>Arazo Egoera.</p> <p>Testuingurua: Ikasleek telebistan ikusi dute Bilbon Munduko badminton txapelketa ospatuko dela eta jakinmina sortu zaie.</p> <p>Arazoa: Badmintonari buruz ezer gutxi dakitela konturatu gara.</p> <p>Xedea:</p> <p>Badmintoneko partidu bat jokatzen jakitea teknika eta taktika ezberdinak erabiliz eta honez gain, badmintonaren ezaugarriak, historia, arautegia eta jokalaria ezagutzea.</p> <p>Ataza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Badmintoneko jokalaria den <u>Carolina Marín-i buruzko</u> informazioa taldeka bilatu internet-en (jatorria, ezaugarri fisikoak, irabazitako tituluak, jolasteko modua...) eta guztion artean <u>idazlana</u> egin. - Taldeka baita, <u>Carolina Marín-ek jokatutako partidu baten zati bat ikusiko</u> dute. Jokoan zehar erabiltzen dituen teknikak eta jokaldiak apuntatuko dituzte eta lortutako datuak komentatuz <u>idazlana</u> egingo dute.
<p>Landuko diren oinarrizko konpetentziak.</p> <p>A. Zeharkakoak edo Orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia. -Elkarbizitzarako konpetentzia. -Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. -Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia -Norbera izaten ikasteko konpetentzia <p>B. Espezifikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Konpetentzia motorra. - Matematikarako konpetentzia. - Teknologiarako konpetentzia. - Konpetentzia sozial eta zibikoa.
Helburu didaktikoak:

1.- Interneten bidez, modu autonomoan, informazio zehatza bilatzen, hautatzen eta tratatzen jakitea. (H.O.: 2, 9)

1.1.- Ea interneten bidez informazioa bilatu, hautatu eta tratatzen duen.

2.- Badmintonaren ezaugarriak ezagutzea (jatorria, materiala, oinarrizko arauak, keinu teknikoak). (H.O.: 8)

2.1.- Ea Badmintonaren ezaugarriak ezagutzen dituen.

3.- Badmintoneko keinu teknikoak modu egokian burutzea eta jokoan erabiltzea. (H.O.: 2,5)

3.1.- Ea oinarrizko kolpeak teknika egokiarekin egiten dituen.

3.2.- Ea keinu teknikoak egoera errealean (partiduetan) erabiltzen dituen.

4.- Badmintoneko jarduerak egitean arauak betetzea eta tolerantzia, kiroltasun eta errespetuzko jarrerak izatea. (H.O.: 6, 10)

4.1.- Ea segurtasun arauak (materialaren erabilera egokia...) eta taldean ezarritako arauak betetzen dituen.

4.2.- Ea indarkeriazko portaerak saihesten dituen.

4.3.- Ea emaitzak onartzen dituen.

4.4.- Ea taldekidea(k) eta aurkaria(k) errespetatzen dituen.

4.5.- Ea nork bere eta ikaskideen gaitasun maila onartzen eta errespetatzen duen.

5.- Ataza sortzeko prozesuan, bakarkako lanean aktiboki parte hartzea eta talde lanean, talde-lanak eskatzen duen jokabidea izatea (kolaborazioa, errespetua, entzute aktiboa...) helburu bateratua lortu ahal izateko. (H.O.: 6)

5.1.- Ea ataza sortzeko bakarkako lanean aktiboki parte hartu duen.

5.2.- Ea ataza sortzean talde-lanak eskatzen duen jokabidea izan duen.

6.- Saioetan zehar eta amaieran osasun eta higiene ohitura egokiak mantentzea. (H.O.: 1)

6.1.- Ea saioetan jantzi eta oinetako egokiak erabiltzen dituen.

6.2.- Ea saioa amaitzerakoan dutxatzeko eta erropaz aldatzeko ohitura zaintzen duen.

7.- Jardueretan parte hartze aktiboa izatea (H.O.: 8)

7.1.- Ea lana gogoz burutzen duen eta parte hartze aktiboa duen.

Edukiak:

Badmintonaren ezaugarriak (jatorria, materiala, arauak, keinu teknikoak) - Jolas eta jardueren ezezagutzea, badmintonaren teknika- eta araudi-elementuak kontuan hartuta - Parte-hartze aktiboa - Norberaren eta ikaskideen gaitasun mailaren onarpena - Lankidetzako jarrera - Errespetuzko jarrera - Tolerantzia eta kiroltasun jarrera - Osasun eta higiene ohiturak.

Zeharkako edukiak

- **Osasun hezkuntza:** gaitasun fisikoak lantzeak osasunean duen eragin positiboaz jabetzea
- **Hezkidetzak:** besteko generoko kideak errespetatzea.
- **Bake hezkuntza:** edozein unetan sor daitezkeen istilu edo eztabaidak konpontzea.

Jardueren sekuentzia.

A. Hasierako Fasea:

1. Familiarizazioa.

B. Garapen-Fasea:

2. Badmintonari buruzko eduki teorikoak lantzen
- 3.,4.,5. Eta 6. Badmintonean trebatzeko jarduerak

C. Aplikazio-Fasea:

7. Bolei-badminton eta elkar ebaluazio fitxa
8. Atazaren elaborazioa eta ebaluazioa

D. Orokortzea eta Transferentzia:

9. Tresna kirolak (tenisa, shuttleball, indiaka, mahai tenisa...)

Ebaluazioa.

A. Adierazleak:

- 1.1.- Ea interneten bidez informazioa bilatu, hautatu eta tratatzen duen.
- 2.1.- Ea Badmintonaren ezaugarriak ezagutzen dituen.
- 3.1.- Ea oinarrizko kolpeak teknika egokiarekin egiten dituen.
- 3.2.- Ea keinu teknikoak egoera errealean (partiduetan) erabiltzen dituen.
- 4.1.- Ea segurtasun arauak (materialaren erabilera egokia...) eta taldean ezarritako arauak betetzen dituen.
- 4.2.- Ea indarkeriazko portaerak saihesten dituen.

4.3.- Ea emaitzak onartzen dituen.

4.4.- Ea taldekidea(k) eta aurkaria(k) errespetatzen dituen.

4.5.- Ea nork bere eta ikaskideen gaitasun maila onartzen eta errespetatzen duen.

5.1.- Ea ataza sortzeko bakarkako lanean aktiboki parte hartu duen.

5.2.- Ea ataza sortzean talde-lanak eskatzen duen jokabidea izan duen.

6.1.- Ea saioetan jantzi eta oinetako egokiak erabiltzen dituen.

6.2.- Ea saioa amaitzerakoan dutxatzeko eta erropaz aldatzeko ohitura zaintzen duen.

7.1.- Ea lana gogoz burutzen duen eta parte hartze aktiboa duen.

B. Tresnak:

- Erregistro taulak: asistentzia, arropa eta higiena.

- Grabazioak

- Auto-ebaluazio-fitxak.

- Elkar-ebaluazio fitxak

- U.D.a eta Irakaslearen lana ebaluatzeko fitxak.

SAIOAK

*** 1. SAIOA: Familiarizazioa**

- MATERIALA eta INSTALAZIOA: Errubrikaren fotokopiak, "1 - 2 - 4" jardueraren fitxak eta ikasgelako ordenagailua eta erretroproiektorea. Saioa ikasgelan burutuko da.

- IKASLEEN ANTOLAKETA: 1. eta 2. jardueretan ikasgelako ohiko lekuak mantenduko dituzte. 3. jarduerarako Taldeetan bilduko dira launaka.

- Irakasleak ***U.D.ri buruzko informazioa*** emango du **(10')**:
 - Lortu beharreko helburuak eta gaitasunak.
 - Unitatea kalifikatzeko errubrikaren fotokopia banatu eta azalduko die unitate didaktikoa nola kalifikatuko den jakin dezaten.
- ***Atazaren azalpena: (5')*** Irakasleak, egin beharreko ataza azalduko die. (Ikusi **I. Eranskina**).
- ***Gaiari buruzko aurretiko jakintzak ezagutzeko jarduera "1 – 2 – 4" metodoaren bitartez (40')*** Ikusi **II. Eranskina**.
- ***Bideoa: (5')*** Interneten badmintoneko partidu baten zati bat ikusiko dute unitatearenganako motibazioa pizteko asmoz.

* **2. SAIOA: Badminton-ari buruzko eduki teorikoak lantzen**

- MATERIALA eta INSTALAZIOA: ordenagailuak, lanaren gidoia. Saioa ikasgelan burutuko da.
- IKASLEEN ANTOLAKETA: ikasleek taldeka egingo dute lan.
- ***Saioaren aurkezpena (5')***: Irakasleak saio horretan egingo duten lana azalduko die.
- ***Interneten informazioa bilatzen (55')***: ikasleak taldeka elkartuko dira eta eduki teorikoak landuko dituzte.

Prozedura:

- Ikasle bakoitzak banaka interneten irakasleak emandako gidoia jarraituz informazio zehatza bilatu, hautatu eta beharrezkoa bada itzuliko du. DRIVE-aren bidez lan egingo dute. Informazioa partekatuko dute. Bukatzean taldekide guztiak ordenagailu batean elkartu eta lana irakurri eta zuzenduko dute guztion iritziak entzunez.
- Saio honetako denbora lana bukatzeko nahikoa ez bada, ikastetxetik kanpo amaitu beharko dute.
- Lanaren gida: ikusi **III. Eranskina**

* **3. SAIOA: Badmintonean trebatzeko jarduerak**

- MATERIALA eta INSTALAZIOA: erraketak eta lumak, goma, bideo-kamera. Saioa gimnasioan burutuko da

- IKASLEEN ANTOLAKETA: ikasleek banaka, bikoteka eta taldeka lan egingo dute.

- **Saioaren aurkezpena: (2')** Irakasleak saioaren nondik norakoak azalduko dizkie.

- **Beroketa: (5')** ***Desplazamenduak era desberdinetara (5')***: zortziak egin. Ondoren, 10 metroko distantzian joan-etorriak ikasle guztiak batera erritmo lasaian. Korrika aurrez, atzez, belaunak gora, oinak ipurdira, saltoka alboz, alboz hankak gurutzatuz, zolua ikutu eta salto...

- **Atal nagusia: (30')**

- ***Azalpena***: irakasleak erraketa eta lumaren ezaugarriak deskribatu eta gero, erraketa hartzeko modu egokia azalduko die.

- ***"Erraketa maneiatzan - Banaka" (10')***: Jarduera honetan banaka lan egingo dute. Irakasleak hasieran ariketa guztiak azalduko ditu (konplexutasun maila progresibodunak) eta ikasleak espazioan sakabanatuko dira. Ariketak praktikatzan hasiko dira eta lortzen dutenean, hurrengora pasatu baino lehen, irakasleari irakatsiko diote. Guztia lortzen dutenek ariketaren bat proposatu dezakete, guztioi azaldu eta nahi duenak egitea.

- Ariketak:
 - 10 kolpaketa eskumarekin eta 10 ezkerrekin.
 - Berdina baina erraketaren alde biak erabiliz (alternatiboki)
 - 10 kolpaketa erraketa eskuz aldatuz.
 - Espazioan zehar desplazatu kolpaketak egin bitartean.
 - Kolpaketa altuerak konbinatuz: baxuak, ertainak, altuak, ertainak, baxuak.
 - Kolpatzen dudan bitartean eseri eta zutik ipini.
 - Kolpaketen artean eskuarekin lurra ikutu.

- ***"Erraketa maneiatzan - Binaka" (5')***: Aurreko jardueraren prozedura berbera baina bikoteka.

- Ariketak:
 - Eskua emanda, luma txandaka kolpatu (batek eskumarekin eta besteak ezkerrekin). Guztira 6 kolpaketa. Gero, aldatu.
 - Erraketa batekin luma txandaka kolpatu. Gutxienez 4 kolpaketa.
 - Paseak bikoteka baina bakoitzak bi kolpaketa: auto-pasea (gora) eta pasea (aurrera)
 - Berdin baina auto-pasea normal eta pasea erraketaren beste aldearekin.

- **"Izenak" (5')**: Ikasleak 5eko taldeetan eta borobilean kokatuko dira. Luma gora bidali eta gero taldekide baten izena esango dute. Huts egiten dutenak (txarto kolpatzeagatik edo izena esan ez dutelako) eliminatzen joango dira. Irabazleak hurrengo jolaserako primia irabaziko du. (Eliminatuak bitartean, beraien artean jolastuko dira ez aspertzeko).

- **Badmintoneko partidua (1x1)(10')**: Irakasleak goma zelaiaren luzeeran ipini ondoren bat baten aurka arituko dira. Irakasleak jarduera grabatuko du. Helburua, ikasleen gaitasun maila ezagutzea da.

- **Lasaitasunera itzulera: (5') Luzaketak**

- **Saioaren komentaketa: (3')** ikasleak saioko jarduerari buruzko iritziak emango dituzte.

* **4. SAIOA: Badmintonean trebatzeko jarduerak**

- MATERIALA eta INSTALAZIOA: erraketak, lumak, goma eta uztaiak. Saioa gimnasio berrian burutuko da.

- IKASLEEN ANTOLAKETA: banaka, bikoteka eta taldeka arituko dira.

- **Saioaren aurkezpena: (2')** Irakasleak saioaren nondik norakoak azalduko dizkie.

- **Beroketa: (5')**

- **Artikulazioen mugikortasun ariketak (2')** lepotik hasita orkatiletara. Mugimendu bakoitza 10 aldiz.

- Jolasa: "**Ea saskiratzen duzun!**" (3'): Ikasleak bi taldetan banatuko dira, talde bakoitza zelai erdi batean. Lehen 5 pertsonak zirkulu erdia osatuz, zelai erditik kanastarantz abiatuko dira kolpaketak eginez eta luma saskiratzen saiatuko dira. Ondoren hurrengo 5ak aterako dira. Hurrengo saiakeretan zirkulu-erdiko posizioak aldatuko dituzte.

- **Atal nagusia**: (30')

- ***Binakako aurkikuntza*** (2'): Bikoteka, erraketarekin eman daitezkeen kolpe ezberdinak aurkituko dituzte. *Antzeko gaitasun maila duten bikoteak osatuko dituzte.*

- ***Sakeak*** (10'): irakasleak sake laburra eta luzea azaldu eta gero, bikoteka jarriko dira. Bakoitzak 5 sake labur egingo ditu. Bikoteak sake bakoitza erantzungo du eta ondoren, sakatzaileak eskuarekin hartuko du hurrengo sakea egiteko. Gero rolak aldatuko dituzte.

- Prozesu berbera egingo dute pase luzearekin.

- Azkenik, nahi duten sakea erabiliz, jokaldia jarraituko dute huts egin arte. Sakeak txandaka egingo dituzte.

Gaitasun maila berbera duten bikoteak sortuko ditugu. Sakea egiteko arazoak dituzten ikasleak irakaslearekin bildu eta berarekin lan egingo dute.

(Indartze jarduera).

- ***Erraketaren alde biek in jolasten*** (5'):

- Bikoteka, jokalaria bakoitzak luma eskumako aldetik lehenengo eta hurrengo ikutuan ezkerrekotik (zeharkakoa edo errebesa) joko du.

- Ondoren, ikutu guztietarako zeharkako teknika erabiliko dute.

- Azkenik, jokoan zehar bi kolpaketak erabili ahal izango dituzte jokoaren arabera.

- ***Oinarrizko posizioa eta desplazamenduak*** (5'):

- Azalpena: irakasleak oinarrizko posizioa zein den eta erabiltzeak daukan garrantzia azalduko die.

- Ariketa: binaka, ikasleak aurrez-aurre kokatuko dira bata uztai baten barruan. Lehenak uztaiaren eskumara eta ezkerara bidaliko ditu lumak eta

honek alboetara desplazatuz, bueltatu beharko dizkio. Luma bueltatzen duen bakoitzean uztaian sartu beharko da. Gero rolak aldatuko dituzte.

- **2x2ko partidua (8')**:

- 4' bata aurrean eta bestea atzean. Bakoitzak bere ingurua defendatuko du bertara doazen lumak bueltatzen saiatuz.

- 4' Paraleloan, hau da, batek eskuin aldea defendatuko du eta besteak ezker-aldea.

- **Lasaitasunera itzulera: (5') Luzaketak**

- **Saioaren komentaketa: (3')** ikasleek saioari buruzko iritziak azalduko dituzte.

* **5. SAIOA: Badmintonean trebatzeko jarduerak**

- **MATERIALA eta INSTALAZIOA:** erraketak, lumak, goma. Saioa gimnasioan burutuko da.

- **IKASLEEN ANTOLAKETA:** banaka, binaka eta taldeka egingo dute lan.

- **Saioaren aurkezpena: (2')** Irakasleak saioaren nondik norakoak azalduko dizkie.

- **Beroketa: (5')**

- **Artikulazioen mugikortasun ariketak (2')**: lepotik hasita orkatiletara. Mugimendu bakoitza 10 aldiz.

- **Jolasa: "Kontuz, luma dator!!!" (3')**: Ikasleak 3 taldetan banatuko dira. Bi luma erabiliko dira. Borobila osatu eta etengabe eta inolako ordenik jarraitu gabe, ikasleek paseak egingo dituzte luma biak airean ahalik eta denbora gehien mantenduz.

- Erraz lortzen dutela ikusiz gero, hirugarren luma sartuko dugu.

- **Atal nagusia: (30')**

- **"Bat biren aurka" (15')**: Hiruko taldeetan ikasle batek txandaka, batari eta besteari luma pasatuko die. Luma pasatzen ari dena leku finko batean

egongo da, behin eta berriz beste biei hegalaria pasatzen ari den bitartean. Rolak aldatuko dituzte hegalaria lurrera erortzen den bakoitzean.

- Ariketa berbera baina kolpe bat baino gehiago eman diezazkioke bakoitzak.

- Oraingoan, bat beste bien erdian jarri eta beraien artean egindako paseak mozten ahaleginduko da.

- Azkenik, erdian dagoenak uztai bat izango du eta luma uztaiaren barrutik pasatzen saiatuko dira.

- **"Adi, zure txanda!" (5')**: Bosteko bi talde aurrez-aurre jarriko dira eremuaren alde bakoitzean. Txandarik galdu gabe jo beharko da luma eta beste aldera pasatu. Jo eta gero norberaren ilararen azken posiziora joango dira.

- Ariketa berbera baina aurreko lerroaren azken posiziora joango dira gomaren azpitik pasatuz.

- **"Errematea, dejada eta globoa" (5')**:

- Azalpena: irakasleak hiru kolpaketa moten teknika eta noiz (zein egoeretan) erabiltzen diren azalduko die.

- Ariketak: antzeko gaitasun maila daukaten bikoteak osatuko dituzte eta teknika hauek lantzen hasiko dira.

- Batek sake laburra eta kideak globoarekin erantzun.

- Dejadak praktikatu

- Errematea praktikatu boleiboleko goiko sakea bailitzan.

- Batek sake laburra, kideak luma altzatu (globoa) eta lehenak errematea.

- Bikoteren batek oraindik sakeak edo zeharkako ikutuak menperatzen ez baditu, hauek praktikatzen jarraituko du menperatu arte.

- **2x2ko partiduak (5')**:

- Talde bakoitzak erraketa bakarra izango du eta jokaldi bakoitzean kolpatzailea txandakatu beharko da elkarren artean erraketa pasatuz.

- Oraingoan, taldekide bakoitzak bere erraketa izango du baina bi bolantereekin era berean jolastuko dira.

Gaitasun mailaren arabera osatuko dituzte taldeak

- **Lasaitasunera itzulera: (5'): Luzaketak**

- **Saioaren komentaketa: (3')**: ikasleek saioari buruzko iritzia azalduko dituzte.

* **6. SAIOA: Badmintonean trebatzeko jarduerak**

- **MATERIALA eta INSTALAZIOA**: erraketak, lumak eta goma. Saioa gimnasioan burutuko da.

- **IKASLEEN ANTOLAKETA**: banaka, binaka eta taldeka lan egingo dute.

- **Saioaren aurkezpena: (2')**: Irakasleak saioaren nondik norakoak azalduko dizkie.

- **Beroketa: (5')**

- **Artikulazioen mugikortasun ariketak (2')**: lepotik hasita orkatiletara. Mugimendu bakoitza 10 aldiz.

- **Jolasa: "Lumak kanpora" (3')**: Bi talde sortuko dira. Taldekideak beraien zelaitik ahalik eta luma gehien ateratzen saiatuko dira (bakoitzak erraketa bat dauka). Minutu batetan zehar jolastuko dira eta bukaeran zelai bakoitzeko luma kopurua kontatuko da. Bi aldiz jolastuko dira (zelai bakoitzean behin).

- **Atal nagusia: (30')**

- **"Hau zoramena!"(5')**: Ikasleak bikoteka ipiniko dira gaitasun mailaren arabera aurre-aurre. Bietako bat gidaria da eta luma leku desberdinetara bidaliko dio bikotea desplazatzera behartuz: aurrera, eskumara, ezkerrera edo atzera.

- Gero rola aldatuko dituzte.

- **Ez galdu zure txanda!! (5')**: 5eko 4 taldeak ondorengo eran kokatuko dira: bi aurrez-aurre bi lerrotan eta beste biak berdin. Bi luma egongo dira jokoan. Talde bakoitzeko jokalaria, luma kolpatu eta gero, lerroz aldatuko

da eta dagokion lerroaren atzealdean ipiniko da. Biraketaren norantza eskuinerantz izango da. Helburua, luma biak ahalik eta denbora gehien airean mantentzea da.

- Ariketa berbera egingo dute baina ezkerreko noranzkoan.

- **1x1eko partiduak (5')**: Jokalariak kolpaketa desberdinak erabiltzen saiatuko dira jokuaren garapenaren arabera ustez egokiena dena aukeratuz (Beheko, alboko eta goiko kolpaketak, eskuineko eta zeharkako kolpaketak eta erremateak, dejadak eta globoak). *Antzeko gaitasun maila duen bikotearekin jarriko dira.*

- **2x2ko partiduak (15')**: Zelaia bost zatitan banatu eta gero, eremu bakoitzean 2x2ko partidua egingo dute. Ondoren eskumara posizio bat mugituz, beste aurkari batzuen aurka jolastuko dira. Guztira 3'ko 5 partidu.

- **Lasaitasunera itzulera: (5') Luzaketak**

- **Saioaren komentaketa: (3')** ikasleek saioari buruzko iritziak azalduko dituzte.

* **7. SAIOA: "Bolei-badminton" eta Elkar – ebaluazio fitxa**

- **MATERIALA eta INSTALAZIOA:** erraketak, lumak, goma, klariona, elkar-ebaluaketa fitxak eta bideo-kamera. Gimnasioan burutuko da.

- **IKASLEEN ANTOLAKETA:** ikasleek bikoteka eta taldeka lan egingo dute.

- **Saioaren aurkezpena: (2')** Irakasleak saioaren nondik norakoak azalduko dizkie.

- **Beroketa: (5')**

- **Jolasa: "Etxea zaintzen" (5')**: Zelaiaren erdialdean zirkulu nahiko handia marraztuko dugu. Zirkuluaren kanpoan 5 pertsona defendatzen egongo dira. 2 metrora, kanpoko zirkulu handiagoa marraztuko dugu.

Inguruan gainontzeko ikasleak egongo dira eta marra zapaldu gabe lumak barruko zirkuluan sartzen saiatuko dira minutu batean zehar.

- 5eko talde guztiek beteko dute defendatzaile rola.

- **Atal nagusia: (30')**

- ***Elkar - ebaluazio fitxa betetzen (15')***: 5'ko partiduak. Binaka egingo dute lan. Batek 5'ko partida jokatzen duen bitartean kideak behaketa-fitxa beteko du. Jarraian rol aldaketa. Irakasleak jarduera grabatuko du. (**Ikusi IV. Eranskina**).

- ***"Bolei-badminton-a" (15')***: Bosteko bi talde jarriko dira sarearen alde bakoitzean eta boleibolaren oinarrizko arauak jarraituz jolastuko dira: errotazioa, puntuazio sistema, kolpe kopurua,...

- **Lasaitasunera itzulera: (5')**: ***Luzaketak***

- **Saioaren komentaketa: (3')**: ikasleek saioari buruzko iritziak azalduko dituzte.

* **8. SAIOA:**

- MATERIALA eta INSTALAZIOA: ordenagailu eramangarriak, ebaluazio-fitxak. Saioa ikasgelan burutuko da.

- IKASLEEN ANTOLAKETA: taldeka lan egingo dute.

- ***Atazaren elaborazioa (45')***: Ikasleak taldeka elkartuko dira eta ataza sortzeko jarduerak egingo dituzte.

- ***Ebaluaketa (15')***: Auto-ebaluazio fitxa, Errubrikaren fitxa eta Unitate Didaktikoa ebaluatzeko fitxa beteko dituzte.

* **9. SAIOA:**

- MATERIALA eta INSTALAZIOA: teniseko erraketak eta pilotak, shuttleball materiala, mahai tenisa, indiakak. Saioa gimnasioan burutuko da.

- IKASLEEN ANTOLAKETA: taldeka lan egingo dute. Zirkuitua.
- **Saioaren aurkezpena: (2')**: Irakasleak saioaren nondik norakoak azalduko dizkie.
- **Beroketa: (5')**
- ***Artikulazioen mugikortasun ariketak* (2')**: lepotik hasita orkatiletara. Mugimendu bakoitza 10 aldiz.
- Jolasa: "***Harrapaketan erraketaz!***" (3'):
- **Atal nagusia: (30')**
- Taldeka jarrita, talde bakoitza erraminta ezberdinak erabiliz, ikasitako trebetasunak aplikatzen saiatuko da
- **Lasaitasunera itzulera: (5'): *Luzaketak***
- **Saioaren komentaketa: (3')**: ikasleek saioari buruzko iritziak azalduko dituzte.

ERANSKINAK

* **I. ERANSKINA: ATAZA**

Taldeetan elkartuta, Badmintoneko proiektua sortzeko ondorengo lanak egingo dituzue:

- Taldeka Badmintoneko jokalaria den Carolina Marín-i buruzko informazioa bilatu internet-en (jatorria, ezaugarri fisikoak, irabazitako tituluak, jolasteko modua...) eta guztion artean idazlana egin.
- Taldeka baita, Carolina Marín-ek jokatutako partidu baten zati bat ikusiko duzue. Jokoan zehar erabiltzen dituen teknikak eta jokaldiak apuntatu beharko dituzue:

erremateak, globoak, dejadak, errebesak... Jarraian, datu hauek komentatuz, idazlana egingo duzue.

* **II. ERANSKINA: Hasierako ezagutzak jakiteko galderen fitxa**

1 – 2 – 4 metodoa

BADMINTON
Banaka (1)
1.- Badakizu badmintona non eta nola sortu zen? 2.- Badmintoneko zein modalitateak ezagutzen dituzu? 3.- Badmintoneko partidu batetan nola lor dezakegu puntua? 4.- Partiduetan zenbat sake egin ditzake jokalaria? Eta nora zuzendu behar da sakea? 5.- Ezagutzen duzu badmintonean erraketa kolpatzeko ikutu edo teknikarik? 6.- Ezagutzen duzu badmintoneko jokalaria famaturik?
Binaka (2)
- 1. galderaren erantzunak: - 2. galderaren erantzunak: - 3. galderaren erantzunak: - 4. galderaren erantzunak: - 5. galderaren erantzunak: - 6. galderaren erantzunak:
Launaka (4)
- 1. galderaren erantzunak: - 2. galderaren erantzunak: - 3. galderaren erantzunak: - 4. galderaren erantzunak: - 5. galderaren erantzunak: - 6. galderaren erantzunak:

* **III. ERANSKINA: LAN TEORIKOA EGITEKO GIDOIA**

BADMINTON

- DEFINIZIOA: Kirola zertan datza, helburua, nola jolasten da.
- HISTORIA: Non eta nola sortu zen, noiz sartu zen joko Olinpikoetan...
- BEHARREZKO MATERIALA: erraketa eta luma
 - Bakoitzaren marrazkia eta ezaugarriak (materiala, neurriak)
- JOKO-ZELAIA: Binakako eta banakako modalitateetakoak.
 - Marrazkia eta neurriak
- OINARRIZKO JARRERA: marrazkia edo posizioa deskribatu.

- ARAUDIA: modalitateak, puntua nola lortzen da, zenbat sake, puntuazioa (zenbat puntura jolasten da), zenbat set...

*** IV. ERANSKINA: Elkar - ebaluatzeko fitxa**

IKASLEEK BETE BEHARREKO FITXA: "x" idatzi dagokion lekuan.

BEHATUTAKO IKASLEA:

NIRE IZENA:

Behatu dudan lagunaren izena:			
Bere aurkariaren izena:			
	GUTXITAN	BATZUTAN	GEHIENETAN
Oinarrizko jarrera mantentzen du.			
Zelaiko erdigunea bilatzen du kolpaketa bakoitzaren ondoren.			
Behar denean desplazamenduak egiten ditu.			
Sakeak modu egokian egiten ditu.			
Goiko kolpaketak teknika egokiarekin egin ditu.			
Beheko kolpaketak teknika egokiarekin egin ditu.			
Errebes kolpaketak erabili eta teknika egokiarekin egin ditu.			
Bolantearekin globo-ak egin ditu. (Gutxienez 3)			
Errematerik egiten du. (Gutxienez 3)			
Dejadarik egiten du. (Gutxienez 3)			
GUZTIRA			

*** V. ERANSKINA: Auto - ebaluazio fitxa**

GORPUTZ HEZKUNTZA

U.D.a:
BADMINTON

IZENA:

MAILA:

- Guztiz ahalegindu zara ala esfortsu handiagoa egin ahal izango zenuela uste duzu?
- Jarduerak interesa erakutsiz eta aktiboki parte hartuz egin dituzula uste duzu?
- Jarduerak Gorputz Hezkuntzako ikasgaia ez den beste testuingururen batetan praktikatu al dituzu? Zeinetan?
- Zer da ikastea gehien kostatu zaizuna?
- Badago oraindik menperatzen ez duzun zerbait? Zer?
- Unitate Didaktiko honetan zeozer berria ikasi duzu? Erantzuna baiezkoa izatekotan, zer da ikasi duzuna?
- Ikasitakoa bizitzarako baliagarria izango zaizula uste duzu? Zein modutan?
- Zein iritzi daukazu taldeka lan egiteari buruz?
- Gustura sentitu zara taldean lan egiterakoan?
- Taldekideek zure ideiak eta iritziak kontuan hartzen dituztela uste duzu?
- Ikasgaia gainditzea merezi duzula uste duzu?
- Zein nota ipiniko zenioke zure buruari? 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Eta fitxa hau bete ondoren 1. Saioan banatutako Errubrika beteko dute balizko kalifikazioa kalkulatzeko.

*** VI. ERANSKINA: Unitate didaktikoa eta irakaslearen lana ebaluatzeko fitxa**

GORPUTZ HEZKUNTZA
BADMINTON

U.D.a:

IZENA:

MAILA:

- Zer da Unitate Didaktikotik gehien gustatu zaizuna?
- Eta gutxien gustatu zaizuna?
- Egindako jarduerak interesgarriak iruditu zaizkizu?
- Zer kendu edo gehituko zenuke Unitate Didaktiko honetan?
- Unitate didaktikoko edukiak lantzeko denbora gehiago beharko litzatekeela uste duzu?
- Zer deritzozu edukiak talde-lanaren bidez ikastearen metodologiari?
- Orokorrean gelan giro ona eta egokia egon dela uste duzu?
- Zer deritzozu erabilitako ebaluaketa-sistemari?
- U.D.ari puntuazioa eman 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

(1 txarrena, 10 hobereena)

- Irakaslearen lanari puntuazioa eman 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
- Zeozer gehiago komentatu nahiko zenuke?

* **VII. ERANSKINA: ERRUBRIKA**

		EBALUAZIO ADIERAZLEAK	LORPEN MAILA		
<u>EZAGUTZA TEORIKOA</u> (2 puntu)		- <u>Badmintonaren eduki teorikoak ezagutzen ditu(t):</u> badmintonari buruzko lana egin du(t). (Puntu 1)	Badmintoneko lana egiteko prozesuan oso gutxi parte hartu du(t). Lana irakurri besterik ez du(t) egin	Interneten niri zegokidan informazio zehatza bilatu, hautatu eta tratatu du(t) modu autonomoan, beraz, edukiak ezagutzen ditu(t)	Interneten zehatza aut taldeki e
			0,25 puntu	0,5 puntu	
	<u>Lana</u> (Puntu 1)	Irakasleak ebaluatuko			
<u>ATAZA</u> (2 puntu)	Bakarkako-lana (0,8 puntu)	- <u>Ataza sortzean aktiboki parte hartu du(t):</u> niri zegokidan atala bete du(t).	Ez du(t) atazan parte hartu ez dudalako nahi izan	Niri zegokidan atala gogo gutxiz bete du(t)	Niri zegokidan bete du(t)
			0 puntu	0,4 puntu	
	Talde-lana (1,2 puntu)	- <u>Ataza sortzeko prozesuan talde-lanak eskatzen duen jokabidea izan du(t).</u>	Prozesuan oso gutxi kolaboratu du(t). Kideen iritziak molestatu gabe entzun baino ez du(t) egin	Prozesuan kideen iritziak entzuteaz gain, nire ideiak ere azaldu ditu(t) hitz egiteko txanda errespetatuz	Prozesuan iritziak e gain, nire ideiak ere azaldu hitz egiteko txanda erresp Kideen iritziak maila errespetatuz
			0,3 puntu	0,6 puntu	0,9 puntu

<p style="text-align: center;"><u>EKIMENAK</u> (3 puntu)</p>	<p>- <u>Kolpaketak teknika egokiarekin egin ditu(t).</u> (Puntu 1)</p>	<p>Teknikari ez dio(t) arreta handirik ipini</p>	<p>Teknika egokiarekin egin ditu(t) GUTXITAN</p>	<p>Teknikari egokiarekin egin ditu(t) BATZUTAN</p>
		0,25 puntu	0,5 puntu	0,75 puntu
	<p>-<u>Teknikak partiduetan erabili ditu(t).</u> (Puntu 1)</p>	<p>Menperatzen ditudan teknikak bakarrik eta bikoteak ebaluatu nauen (duen) jardueran baino ez</p>	<p>Menperatzen ditudan teknikak bakarrik partidu guztietan</p>	<p>Menperatzen ditudan teknikak bakarrik partidu guztietan</p>
		0,2 puntu	0,25 puntu	0,45 puntu
	<p>- <u>Jardueretan parte-hartze aktiboa izan du(t) eta lana gogotsu burutu du(t)</u> (1 Puntu)</p>	<p>GUTXITAN</p>	<p>BATZUTAN</p>	<p>GEHIEK</p>
		0,25 puntu	0,75 puntu	1,00 puntu
<p style="text-align: center;"><u>JARRERAZKO BALIOAK</u> (3 puntu)</p>	<p>- <u>Saioetara zapatila eta erropa egokiak ekarri ditu(t).</u></p>			
	<p>- <u>Saioa eta gero dutxa hartu eta erropa aldatu du(t).</u> (Puntu 1)</p>	<p>4 saioetatik BEHIN BAKARRIK</p>	<p>BITAN</p>	<p>HIRU BERTAN</p>

		0,25 puntu	0,5 puntu	0,75
	- <u>Errespetuzko jarrera izan du(t).</u> (2 puntu)	Materiala modu egokian erabili dut eta arauak bete ditut	Materiala eta arauez gain, taldekideak eta aurkariak errespetatu ditu(t)	Materiala eta pertsona guztien emaitza onak ditut
		0,5 puntu	Puntu 1	1,5 puntu